

ISRAELEN LAGUNTZA

Israelgo Armadak errefuxiatuen guneak inguratu zituen irailaren 16an, eta inori ez zion utzi bertatik alde egiten

erabaki zuten. Guneen inguruko setioa itxi zuten. Gauak egunari lekua utzi zionean Hobeikak baimena jaso zuen Sabra eta Shatilan bi batailoi gehiago sartzeko; sarraskiak goia jo zuen orduan. Israelgo Armadak errefuxiatuen ihesa galarazi zuen. Gauaz israeldarrek bengalak jaurti zituzten, falangistek sarraski lana errazteko. Errefuxiatu guneetan emakumeak, zaharrak eta umeak soilik geratzen ziren, gizonezko gazteak eta helduak PAErekin alde egina, kartzelan edo hilda baitzeuden. Ez zen, beraz, inor egon Sabra eta Shatila falangisten erasoetatik babesteko. Falangistek emakume haurdunak ere hil zituzten.

Israelen esku-hartzea

Israelgo Armadak errefuxiatu guneak inguratu eta inori ez zion utzi bertatik alde egiten. Irailaren 16an, sarraskia hasi zen egunean Amos Yaron jeneral israeldarrek airetik hartutako argazkiak eta datuak eman zizkien falangistek. Erasoerako hautatutako gunean milaka lagun zeuden, aurreko erasoetatik aterpe hartu ondoren bertara bueltatuta. Eskolak berriz irekitzera eta kaleak eta etxeak garbitu eta konpontzera zihozten. Jendea Bashir Gemayelen gobernuak zer ekarriko beldur zen, baina ekintzaileek alde egin zuten eta egoiliar txartelak zituztenez, itxaropena zuten ez zitzaizela deus gertatuko. Sarraskiaren biktima asko txartelen bila zebiltzala hil zituzten, beren zilegatasuna frogatu nahi izan balute bezala; halaxe aurkitu zituzten gorpu gero. Hobeikak gidatutako falangista talde bat Israelgo Armadaren kuartel nagusiaren ondotik, dunen artean sartu zen errefuxiatu gunera. Israelgo Armadak gunearen ingurua ixteaz gain, tiroak botatzen ziren alde egiten



JUANMA SARASOLA
BIKTIMAK. Saliha Hishaili andreari —erdian, argazkiari heltzen— zazpi seme-alaba hil zizkioten sarraskian.

saiatzen zirenei; berebat, gauaz bengalak jaurti zituzten guneko kale estuak argitzeko, falangisten mesedetan. Irailaren 18an Israelek falangisten erretreta agindu zuen. Ordurako guneak suntsituta zeuden eta milaka errefuxiatu sarraskitu edo desagertu ziren.

Egun berean Israelek ukatu egin zuen sarraskien berri zuela eta horietan parte hartu zuela. Bitartean, falangistek israeldarren hondeamakinak erabili zituzten gorpuak lurperatzeko. Eguna bukatzean falangistek guneak utzi zituzten.

Irailaren 29an UNIFIL indarrak Beirutera itzuli ziren, Amin Gemayel —hildako Bashirren anaia— presidente berriaren eskariz. Sarraskiaren biktimak 3.000 inguru izan direla uste da. Israelgo Armadak geroago 800 hildakoen kopurua eman zuen.

Hildakoei eta senitartekoei zor zaien errespetuari mespretxu eginez, sarraskitutakoak lurperatzeko hobi komunetako bat urte askotan zabortege gisa erabili dute libanoarrek, eta bestea golf zelai bat egiteko zapal-zapal utzi dute.

Israelgo batzorde batek orduko Israelgo Defentsa ministro Ariel Sharon sarraskiaren zeharkako erantzule seinatu zuen geroago. Sarraskia izan eta hogeitaz urtera, sarraskituen senideek Sharon Belgikan epaitzeko prozesua abiatu dute.

Testigantza zuzenak

Triskantza sufritu zuten palestinarrek hilketa eta torturen berri eman dute

Juanma Sarasola | SHATILA

Rabia Al Turkek 33 urte ditu; sarraskiaren garaian 13 zituen. Orduko oroitzapenak kontatu dizkio EGUNKARIARI: «Heriotzak gogoratzen ditut, buruak... beren seme-alabak besoetako zein hanketako markengatik ezagutzen zituzten familiak ere. Gogoratzen dudana aldiro oilo ipurdia jartzen zait...». Emakume palestinarrek espero du «nazioarteko komunitateak bere erantzukizunak aintzat hartzea eta, sarraskiaren eragile zein egileak zigortzeaz gain, arazo palestinarri aterabide zuzena bilatzen laguntzea ere». Kexu ageri da Nazio Batuen bi aurpegiez: «NBERen Seguritasun Kontseiluaren ebazpen guziak berehala jartzen dira martxan; Iraken, esaterako. Aitzitik, arazo palestinarri dagokionez, ez da hala gertatzen; ezertarako ez dute balio ebazpenok».

SALIHA HISHAILI

Sarraskiko biktima

«Zer gertatzen da Justiziarekin, itzultzeko eskubidearekin? Zer gertatzen da Sharonen epaiketarekin?»

Sarraskiaren aurretik eta ondotik Shatilako egoera nola aldatu den azaldu digu Al Turkek: «Lehen beti ginen okerrena noiz iritsiko. Gaur egun bizitza aurrera doa, baina egoera oso latza da eta gazteek ez dute lanik, ezta 70 bat lanbide kualifikatutan aritzeko aukerarik ere».

Saliha Hishaili zazpi seme-alaba hil zizkioten falangista kristauek, eta alaba baten kasua sarraskiko lehenbiziko frogara izan zen. Shatilako gizarte zentroan dago hunkituta. Tartean malkotan eta es-

kuez aurpegia estaltzen mintzatu da: «Zaina alaba ezkondu eta lau hilabetera hil zuten, botila baten gainean eseraraziz torturatu ondoren. Bigarren semearen gorpuaren bi zati kausitu zituzten, eta burua ez zen azaldu... Beste alaba bati azidoa bota zitoten; itxuragabetu zuten haren semeak 10 urte zituen... Suhia ere eraman zuten eta bila eta bila aritu ondoren, hobi komun batean, 20 bat hilotzekin topatu genuen; aldean zerman nortasun agiriagatik eza gutu genuen; Fahd Haider deitzen zen. Zer gertatzen da Justiziarekin, itzultzeko eskubidearekin? Zer gertatzen da Ariel Sharonen kontrako epaiketarekin?», galdetu du erabat suminduta.

Gizonezko biktima batek lekukotasuna agertu du. «Lehenbiziko gau horrek eguna iduri zuen, Israelgo Armadak jaurtitzen zituen hainbeste bengalen argitasuna zela eta. Biharamunean, Shatilan amaitu ondoren, Sabrara jo zuten falangistek. Han inork ez zekien zer gertatu zen, ez baitzuten etxetik ateratzerik. Shatilako sarraskiaz Montecarloko Irratitik jakin zuten...»

Sala Sirsauik 19 urte zituen garai hartan. «Milizianoek, gu harrapatu ondoren, beraiekin eraman gintuzten. Kalek eta etxe guziak miatzen zituzten, eta jendea pijaman jaitzen zuten. Oraindik jende asko zegoen bizirik... Ginen lekutik guneko erdiguneraino gorpuak zeuden, etxe barru nahiz kanpoaldean erorita. Buruan labankadak zituzten gizonak ikusi genituen...». Halako hainbat kasu entzun ondoren sarraskitutako senide guziek justizia egiteko eskaera ahoratzen zuten. Oraindik ezagutzen ez duten justizia, urrun dagoena.

Herenegun, ostiralero legez, jaieguna zuten musulmanek, eta denetariko merkatua zuten jarria Shatilako kale nagusiaren bi aldeetan. Jendea goiti eta beheiti, umeak jostari edo bazterrak nahasten. Sarraskitik 20 urtera, Shatilak bizirik dirau. *Ma'a salam*, Shatila. Bakean izan.




Muskizko
Udal
Euskaltegia

Euskaran sartzeko bidea

□ Matrikula zabalik

e-mail: irakaslea@teletel.es

Cendeja, 29 Tel.: 94 670 64 11 HABEren dirulaguntzaz



PIPIAK GARBITU EGINGO DITUGU

Desagerrarazi nahi dituzu pipiak, termitak, sitsak eta beste xilofagoak altzari edo libururen batetik, arropa, ate, tarima edo zurezko egituretatik? Garbi-n erraz, garbi, laster eta merke garbitzen ditugu. Eta tratamendurik modernoekin, Shock Termikoarekin adibidez: ez dute parasitoen azarnarik uzten, eta ez diete kalterik egi-

ten piezei eta pinturei. Deitu eta eskatu aurrekontua:
94 457 07 39 / 943 33 18 37 / 948 30 32 45.
Ikusiko duzu xomorro horiek zer gutxi irauten duten.

Garbi S.L.
KONTSERBAZIO TRATAMENDUAK